

EROSKIREN 1º AZOKA TOKIKO EKOIZLEEKIN

Eroskik euskadiko 150 ekoizle biltzen ditu

Eroskik Euskadiko 150 ekoizle bildu zituen Gasteizen, Goiuriko Jauregian "Eroski eta Euskal Herriko ekoizleak: lankidetzaz arrakastatsua" jardunaldian. Eroski eta haren lurraldeko ekoizleak hitz egiteko topaketa izan zen, lurraldeko ekonomiak sustatzearen ideiarekin.

Aldi berean, 30 ekoizle baino gehiagok euren produktuak erakutsi zituzten "Eroski eta bere ekoizleen azokan".

Jardunaldian Alfonso Saéz de Cámarak, Udapa S.Coop-eko gerenteak, Udapak Eroskirekin duen konpromezua hitzaldi batean azaldu zuen. Bi enpresek komunean duten izaera eta elkarrekin ibilitako bidea zehaztu zuen, baita elkarrekin jarraituz gero izango dituzten helburu eta erronkak.

Bitartean, Aihotz Plazan karpa batean Udapak Eroskiren bidez saltzen dituen produktuak erakusten zituen. Gainera, Gamarrako Ostalaritza Eskolako ikasleek Udapako patatekin eta Hobeako arrautzekin egindako patata tortilla eskaintzen zuten.

